



ikastolenelkartea

nik, zuk,
guk....
300 bai?

1. SARRERA

Hizkuntza minorizatu batek erronka asko ditu eta horien artean testuinguru digitaletan presentzia izatea eta beste hainbat hizkuntzen artean leku propioa egitea dago. Gizarte globalizatu batean bizi gara eta informaziorako eta komunikaziorako teknologiek gure arbasoek ezagutu zuten bizimodua guztiz eraldatu du. Informazioaren garaian bizi gara, klik bateko distantziara daukagu jakin nahi dugun hori guztia baina askotan euskaraz informazioa aurkitzeko zailtasunak izaten ditugu eta beste hizkuntzetara jotzen dugu.

Euskarak eta euskal kulturak sarean duen presentzia areagotzeko, gure ondare kulturalaren zabalkunderako, egungo gazteen ohituretara hurbiltzeko eta abarrerako beharra dago. Argi daukagu erronka komuna dela esku artean daukaguna eta bakoitzak beretik ekapenak eginez, ezagutza partekatuz eraikiko dugula sare zabal eta esanguratsua. Ez da nahikoa ezagutza hori sarean izatearekin, erabiltzaileen jarrerak ere aldatu behar dira eta ohitura horietan txikitatik eragin behar da etorkizuneko erabiltzaileak izan daitezen eta euskaraz nabigatzeko hautua egin dezaten.

Aipatutako gizarte eredu honetan, konpetentzia digitalak gero eta garrantzi handiagoa hartzen du bizitzako edozein egoera kudeatzerako orduan. Ikuspegi honetan ere Euskal gizarteak kontzientzia hartu behar du eta konpetentzia digitalaren garapenerako konpromisoa hartu behar dugu norbanako zein erakunde bezala. Ez da nahikoa lainoan behar dudana informazioa aurkitzearekin, informazio iturrien fidagarritasuna arakatzen gaitu behar gara, informazioaren irakurketa kritikoa egiten eta baita ere informazio horren erabilera arduratsua egiten.

Azkenik, egunerokotasunean oso presente dagoen beste arazo bati ere aurre egin nahi diogu egitasmo honen bidez. Izan ere, sarean bizitzako beste testuinguru gehienetan bezala emakume eta gizonezkoen presentziaren artean dagoen arrakala izugarria da. Gai honen inguruan sentsibilizatu nahi ditugu proiektuan parte hartuko dutenak eta egoera irauli asmoz, sortze prozesu batean murgildu nahi ditugu.

Egoera honetan jaio da “Nik, Zuk, Guk... 300 bai?” erronka. Wikilarien elkarteak eta Ikastolen Elkarteak elkarlanean sortutako egitasmoa da.

2. HELBURUAK

Sarreran egindako testuinguratzeak egitasmoak helburu anitzak dituela irudikatzen garamatza. Euskararen sustapenarekin lotura zuzena izanik, zehar lerro bezala beste hainbat gai jorratu nahi dira. Ondorengo lerroetan, labur bada ere, proiektuarekin landu nahi ditugun helburuak zehazten dira:

- a. Sarean orokorrean eta Txikipedian zehazki, euskararen presentzia areagotzea.
- b. Gizon eta emakumeen presentziaren aurrean sarean oro har eta Txikipedian zehazki dagoen arrakalaz sentsibilizatzea eta arazoa konpontzeko parte hartze aktiboa izatea.

- c. Mundu globalizatu honetan ezinbestekoa bilakatu den kompetentzia digitalaren garapena lantzea.
- d. Euskal komunitate bezala, gure hizkuntza minorizatuak sarean duen egoeraz kontzientzia hartzea eta eragile aktibo bilakatzea.

3. ANTOLAKETA

GAIK: Haur eta gazteek informazio baliagarria eta fidagarria eskuartean izatea helburu orokorra izanik, ekoizpen horren erdigunean beraiek jartzea ezinbestekoa ikusten dugu. Informazioak bai kalitate testuala bai zientifikoa izan behar duela ez dago zalantzarik baina honez gain ekarpen esanguratsua izatea azpimarratzea nahiko genuke. Nola? Ikasleen irteera profila eskuratzeko garrantzitsuak diren gaiak aukeratuz.

Hori horrela izanik, bi gai nagusi jorratzea proposatzen dugu:

a. EMAKUMEEN BIOGRAFIK

Historiako parte diren baina gutxi ezagutzen diren edota sarean presentzia txikia duten emakumeen biografiaz osatu nahi dugu Txikipedia. Arlo desberdinetako emakumeak aukeratzeko ditugu: musika, bertsolaritza, margolariak...baina fokia emakume kirolarietan jarriko dugu.

Emakume kirolariak. 2021ean olinpiar jokoen urtea izanik, interesgarria iruditu zaigu puntako emakume kirolarien gaineko gaia jorratzea. Nabarmena da olinpiar jokoen parte hartu edota domina bat lortu duten gizonezko eta emakumezkoen arteko arrakala interneten duten presentziari dagokienean. Kirol guztietan emakumeen presentzia sustatzeko ezinbestekoa da haur, gazte eta nerabeei erreferentzia errealak eskaintzea eta horretarako proiektu bikaina dela uste dugu.


b. TOKIAN-TOKIKO INFORMAZIOA

Ikasleek beraien gertuko den informazioa jartzea bilatzen dugu hemen. Beraien ikastolako zein herriko informazioa, beraiek sortua, sarean ikustea eta edonoren eskura eta edonork osatzeko eta hobetzeko aukeran daudela jabetzea, zirrargarria da.

EPEAK: Proiektua urtariletik martxora bitarte garatuko da.

SAIOAK: Partehartzaileei dagokionez, Bigarren Hezkuntzako lehen zikloko ikasleei zuzenduta dago. Ikasle hauen bai hizkuntza maila bai kompetentzia digitala egokia ikusten dugu horrelako erronka bateri aurre egiteko. Hau horrela izanik, ikastolaren batek nahiko balu beste adin bateko ikastaldek partehartzea, antolaketa garaian adostutako egokitzapenak egingo lirarteke erronkari berme guztiekin aurre egiteko.

Parte hartzen duten ikastaldek bi saio presentzial egingo dira, aurkezpenetik hasita eta ekoizpenaren publikazioarekin bukatuz (bi saio horien egun proposamena Ikastolen Elkartetik egingo da). Proiektua hiru fasetan banatzen da.



4. ADIERAZLEAK

Adierazleak definitzerakoan, neurgarriak eta esanguratsuak diren irizpideak zehazten saiatu gara. Era objektibo batean neurtu ditzakegun ekintza eta ekoizpenak irudikatu ditugu eta horiek zerrendatzen dira hurrengo lerroetan:

- Egitasmoan parte hartzen duten ikastola kopurua (edota ikastalde kopurua).
- Egitasmoan parte hartu ostean, Txikipedian sortu diren artikuluko kopurua.
- Txikipedian egitasmoaren aurretik zeuden emakumezkoen artikuluko kopurua eta egitasmoaren ostean dauden arteko aldea.
- Sortu diren artikuluko guztietatik, emakumen kirolarien inguruan sortu direnen kopurua.
- Parte hartu duten ikasleek eta irakasleek asebetetzea proiektuarekiko.

5. KOMUNIKAZIOA

Honelako egitasmo batekin lortu beharrekoak aipatu ditugu dokumentuaren sarreran baina egitasmoa benetan arrakastatsua izan dadin, ezinbestekoa izango da ikasleen arreta erakarri eta motibazioa piztea. Horretarako, ikasleak erronka integral baten parte direla sentitu behar dute eta beraiek honetan egiten duten ekarpena garrantzitsua eta etorkizunerako erabilgarria izango dela ikusi behar dute.

Ez dira ikasleak motibatu behar ditugun bakarrak; ikastolak eta irakasleak ere xaxatu behar ditugu parte hartzea animatu daitezten. Ikastolak euskara eta euskal kultura eta ondarearen transmisio eta sozializazioarekin konprometitu daude, gure izatean dauden baloreak dira alegia. Hala ere, ez ohikoa eta konplikatu izaten ari diren ikasturteak bizitzen ari gara; pandemiak ziurgabetasuna, beldurra eta presioa jarri ditu mahai gainean eta eguneroko jarduna baldintzatzen ari da. Hori dela eta, ikastolentzako interesgarria izateaz gain, esanguratsua izan behar da honelako egitasmo batean parte hartzea eta ikuspuntu honetan komunikazioak berebiziko garrantzia hartuko du. Egitasmoarekin egiten den ekarpenak zabalkunde mediatikoa izateko aukera dauka eta horretarako lan eginez gero, parte hartzeari balio erantsi hau ere esleitu dakioke.

Honenbestez, komunikazio estrategia argi eta bateratu bat osatu beharko dugu erakunde guztien artean eta hauek dira proiektuan zehar izango ditugun hitoak:

- 2021eko abendura bitartean, diseinu eta sustapen lanak egingo dira: dokumentatu, aurkezpenak osatu, aurkezpenak egin, ikastolen izen ematea bideratu, taldeak eta datak kudeatu, arduradunak izendatu...
- Azaroan egitasmoaren berri zabalduko da ikastoletan. Izena emateko epea zabalduko da abenduaren 10era arte.
- Urtarrilaren 13tik 17ra bitartean prentsa oharra argitaratuko da. Oharreen egitasmoaren berri eman eta parte hartuko duten ikastolen zerrenda argitaratuko da. Aldi berean, erakunde guztietako web orrietan emaitzen berri emango da eta ohiko beste komunikazio bideak baliatuz ere informazioa zabalduko da.
- Urtarriletik martxora arte Ikastolen elkartetik pertsona ezberdinak arituko dira antolaketa (sustapen kanpaina, baliabideen sorkuntza, ikastolekin hitzorduak egin...) eta dinamizazio lanetan. Horrekin batera, dinamizatzailerak ikastoletan arituko dira. Lehen saioa kokatze eta motibazio jarduerak egingo dituzte eta bigarren fasean artikuluen publikaziorako saio praktikoa jorratuko dute.
- Martxoaren 8an, emakumearen egunean, egitasmoaren behin behineko emaitzak komunikatuko dira prentsa ohar baten bidez. Proposatutako erronkari begira egoera zein den jakiteko momentua izango da eta horren arabera ikasleak berriro ere motibatze momentua izan daiteke. 300 artikuluren langa gaintu bada, baietz 350 lortu proposatuko dugu eta langa azpitik egonez gero, zenbaki horretara iristeko azken bultzada emango zaio ekimenari. Aldi berean, erakunde guztietako web orrietan emaitzen berri emango da eta ohiko beste komunikazio bideak baliatuz ere informazioa zabalduko da.